



GIH-AK ARDATZ DITUZTEN LH-KO IBILBIDE PEDAGOGIKO BERRITZAILEAK: PLANIFIKAZIOTIK EBALUAZIORA

Ainara Romero Andonegui eta Naiara Bilbao Quinatana (Koord.): Arantzazu López de la Serna, Eneko Tejada Garitano, Javier Portillo Berasaluce, Amaia Quintana Ordorika, Ander Arce Alonso eta Itsaso Biota Piñeiro

BILBOKO HEZKUNTZA FAKULTATEA, EHU

HPB/PIE i3lab
2024-2025

TESTUINGURUA

LOMLOE (2020) legeak ekitatea, jasangarritasuna, berdintasuna eta konpetentzia digitala ardatz dituen hezkuntza-eredua ezartzen du. Testuinguru horretan, etorkizuneko irakasleen prestakuntzan nahitaezkoa da **Garapen Jasangarrirako Helburuak (GJH)** lantzeko konpetentziak garatzea, etorkizuneko gizarte kritiko eta konprometitu baten eraikuntzan laguntzeko. Eskakizun horrek bat egiten du **EHUren zeharkako gaitasunekin (2018)**. Hala ere, gaur egungo gradu-planetan konpetentzia horiek ez dira beti modu sistematikoan eta koherentean garatzen; horregatik, ezinbestekoa da haien **garapena aurrez diseinatutako, koordinatutako eta mailakatutako ibilbide baten bidez bideratzea**, ikasleek modu progresiboan bereganatu eta ebaluazio jarraitu baten bidez gara ditzaten. Testuinguru honetan, **IKDi3** metodologia da erreferente egokia, ikaskuntza aktiboa, lankidetzeta eta eraldaketa soziala sustatzen dituelako, Agenda 2030aren eta EHUren Plan Estrategikoaren printzipioekin bat etorritz. Horrela bada, proiektu honetan Lehen Hezkuntzako irakasleen prestakuntzan **zeharkako gaitasunak eta GJHak modu integratuan** uztartuko dituen **ibilbide pedagogiko** bat diseinatu eta ezarri da, haien garapena koherentea, jasangarria eta ebaluagarria izan dadin gradu osoan zehar.

HELBURUAK

Proiektuaren helburu nagusia da **Lehen Hezkuntza Graduko ikasleak hezkuntza jasangarrirako estrategia pedagogiko berritzaileak diseinatzeko eta sortzen trebatzea**: hasierako plangintza didaktikotik abiatuta (Didaktika Orokorra irakasgaia), baliabide digital eta berritzaileen sorkuntzaren bitartez (IKT eta Ikaskuntza Digitalerako Eszenatoki Berriak irakasgaiak), haien inplementazioa eta ebaluazioa ikasgelan gauzatzera arte (Gradu Amaierako Lana). Helburu espezifikoak:

- **Hezkuntza Jasangarrirako Curriculum-plana diseinatzea**, Lehen Hezkuntza Graduko ikasleentzat; konpetentziak, ikaskuntza-emaizak, edukiak eta ebaluazioa definituz proiektuan parte hartzen duten ikasgaietan.
- **Transbertsalitatea sustatzea**, GJH-en garapena ikuspegi eta irakasgai ezberdinetatik landuz.
- **EHUren zeharkako gaitasunen curriculum-diseinua txertatzea irakasgaietan**, helburuak ezarri, jarduerak lotuz eta haien garapena monitorizatzeko estrategiak barneratuz.
- Lehen Hezkuntza Graduko ikasleak gidatzea **GJH-ak lantzeko proposamen teknopedagogikoetan**, ikaskuntza digitala, aktiboa eta berritzailea bultzatuz, IKDi3 ereduaren ildotik.
- **Ikaskuntza-egoerak eta gida didaktikoak diseinatzea**, metodologia aktibo eta teknologian oinarrituen bidez, Pasaporterik Gabeko Arazoei (GJH) modu sortzaile eta kolaboratiboan erantzuteko.
- **Pentsamendu kritikoa eta hausnarketa** sustatzea gure bizi-estiloaren ondorio sozial, ekonomiko eta ingurumenekoen inguruan, bai gizartearen subjektu aktibo gisa, bai etorkizuneko gizartearen prestatzaile gisa.

GARAPENA

01

Plangintza eta diseinua

- GJHekin lotutako **zeharkako gaitasunen garapen-ibilbidea** planifikatu da, ikasgai bakoitzaren helburu eta konpetentziekin lotuz.
- **Integrazio-egoerak eta gidak** diseinatu dira, irakasgai bakoitzean metodologia aktiboak eta estrategiak zehaztuz.
- **Ebaluazio-tresnak** sortu dira (errubrikak, galdetegiak) konpetentzien garapen jarraitua neurtzeko.

Inplementazioa

- Proiektua hainbat ikasgaietan garatu da:
 - 1. Kurtsoa, **Didaktika Orokorra**. Metodologia: EOI/ABR. GJH14 – Itsaspeko bizitza.
 - 2. Kurtsoa, **IKTak Lehen Hezkuntzan**. Metodologia: POI/ABPy. GJH13 – Klimaren aldeko ekintza.
 - 4. Kurtsoa, **Ikaskuntza digitalerako egoera pedagogiko berriak**. Metodologia: JOI/ABJ. GJH12 – Kontsumo arduratsua
 - 4. Kurtsoa, **GRAL**. Metodologia: Ikerketa eta aplikazioa. GJHak modu integratuan
- GJHen inguruko hitzaldiak egin dira (SETEM, AZTI, BC3).

03

Ebaluazioa

- **Ebaluazio-prozesua** martxan jarri da: **errubrikak, autoebaluazioa eta pentsamendu-errutinak** erabiliz ikaskuntza-prozesua eta gizarte-konpromisoaren garapena aztertzeko.
- Proiektuaren emaitzak **kongresuetan eta argitalpenetan** partekatu dira.

02

EMAITZAK

Proiektuaren emaitzak:

- Iraunkortasunari buruzko azaleko kontzepzio moralizatzaileetatik **diskurtso kritikoagoetara, teknikoagoetara eta aplikatagoetara** igaro dira.
- **Zeharkako konpetentziak** indartu dira: Autoebaluazioaren batez bestekoa 4/5etik gorakoa izan da konpetentzia guztietan, bereziki talde-lanean (4,5/5) eta autorregulazioan (4,3/5).
- Ikasleen %85ek beharrezkotzat eta **bideragarritzat** jotzen dute GJHak Lehen Hezkuntzan txertatzea metodologia aktiboen eta baliabide digitalen bidez.

Oro har, proiektuak laguntzen du etorkizuneko irakasleek **iraunkortasuna hezkuntza- eta lanbide-erronka gisa** uler dezaten, eta ez soilik ingurumen-erronka edo erronka etiko gisa.

Ikasleen produktuak:

- Ikaskuntza digitalerako egoera pedagogiko berriak: kontsumo arduratsuari (GJH12) lotutako **11 joko digital** sortu dira.
- Didaktika Orokorra: ikasleek **19 ikas-egoera** diseinatu dituzte, GJH14 (itsaspeko bizitza) txertatuz.
- IKTak LHn: GJH13 (klimaren aldeko ekintza) lantzeko **33 ekoizpen digital** garatu dira.

Emaitzen transferentzia:

- Kongresuak: CIIDES25, BBPP25
- Artikulu eta liburu kapituluak

ESKERRAK

SAE/HELAZ, EHU
HBP/PIE I3LAB 2024-21



ETORKIZUNeko ERRONKAK

- **Ebaluazio sakona**. Oraindik proiektua modu integralean ebaluatzeko urratsak falta dira. Ez da nahikoa ikasleen galdetegien eta errendimenduaren azterketa: beharrezkoa da irakasleen arteko ebaluazio-saioak indarguneak eta hobetu beharreko arloak identifikatzeko. Ebaluazio-saioetan, baloratuko dira: gida didaktikoen erabilgarritasuna, sortutako baliabideen kalitatea, kanpo-eragileen ekarpenen eragina eta proiektuaren koordinazio orokorra.
- Helburua da **hobekuntza-proposamenak adostea** eta etorkizuneko edizioetan integratzea.
- Ikasleen **produktuen balioa**. Lan guztiak digitalizatu eta bilduma ireki batean argitaratzea, komunitatearekin eta kanpoko eragileekin partekatzea.
- Etorkizuneko garapena. **Proiektua GRALetan** txertatzeko aukerak berriro aztertzea.
- Beste **irakasgai eta kurtsoetara eskalatzea** eta beste ikerketa-lerro batzuekin lotzea (adib. ikaskuntza-analitika, hezkuntza digital jasangarria).
- **Nazioarteko hedapena indartzea**, kongresu eta argitalpen berrien bidez.



LH Graduko 4. mailako ikasleen egindako jokoak